

Intxaurrondo

Aitor Navarro (943 28 89 19)

Txara II-ko kultur etxeak zabalik beharko luke honezkerero. Lanak, ordea, atzeratu egin dira eta udazkenean irekitzea espero dute. Dena den, gaur egun argi dago Intxaurrondok bi liburutegi izango dituela, auzotarrek eskatu bezala, Larrotxenen eta Txaran hain zuzen.

Izan ere, duela urtebete inguru, Intxaurrondon hautsak harrotu zituen albistea zabaldu zen: Udalak liburutegia Intxaurrondo Zaharreko Larrotxenetik kendu eta Intxaurrondo Berriko Txarara eramateko asmoa zuela. Auzo elkarteak egitasmoaren aurka azaldu ziren, sinadura bilketa ere egin zen eta protesta esku orriak agertu ziren kaleetan. Dena den, gatazkak ez du aurrera egin eta egoera baretu egin da. Udaleko Kultura Saileko arduradunek eta auzo elkarteek bilerak egin zituzten eta

Intxaurrondon bi liburutegi izatea erabaki zuten.

Jon Etkezarraga Larrotxenek arduradunak azaldu digunez, Larrotxeneko liburutegiak bere horretan jarraituko du. "Asmoa Larrotxenek fondo bakar bat ere ez galtzea da", dio Jonek. Larrotxeneko liburutegiarekin alderatuta, Txarakoak garrantzi handiago emango die teknologia berriei: interneta, fonoteka... Bi solairu izango ditu; lur azalaren parekoan liburutegia jarriko da, eta sotoan, taillerak eta ikastaroak edota hitzaldiak egiteko aretoa. "Berez, kultur etxe bera izango da, baina bi tokitan banatuta", diosku Jonek, "eta bi tokiek liburutegi bana izango dute".

**Auzotarrak asegabe**

Dena den, Txarako etxeak gabezia asko izango ditu auzotarren ustez. Roberto

# Kultur etxe berria zabaldu gabe



Lanak atzeratu egin direnez, Txara II-ko kultur etxea ez da zabalduko udazkenera arte.

Otero Intxaurdi auzo elkar-teko presidentearen esanetan, "areto nagusiak muga asko izango ditu: erdisotoan dago eta ez du bi metro t'erdiko altuerarik. Ez ditu baldintzak betetzen hainbat ekintza egiteko".

Oteroren ustez, eraikin honek ez ditu asetuko auzoaren beharrak. "Areto nagusia, liburutegia eta hiru gela besterik ez ditu. Auzoan ekintzen beharra handia dago 12-13 urtetik gorako neska-mutikoentzat eta ez dugu uste Txarak behar honi erantzungo dionik. Dena den, proiektu honi buruzko infomazio gehiegirik ez zaigu eman, ez behintzat behar bezainbeste" salatu du.

KAFETEGIA - IZOZTEGIA  
**21c**  
**CASINO**  
 Zurriola hiribidea 24 • GROS • Tfnoa.: 943-29.21.55

**LIBURUTEGIA**  
**PINTXOAK BOKATAK eta... GIRO JATORRA!**  
 LOCEIAK  
**LIBURUTEGIA**  
 Gloria kalea 2  
 Tfnoa.: (943) 285436

Kafea  
**Kupsal**  
 Ramon Maria Lili  
 pasealekua 2  
 Tfnoa.: 943-02.17.13  
**GROS**  
**Berezitasunak:**  
 • Gosariak  
 • Kafeak  
 • Pintxoak  
 07.30etatik aurrera irekita

**el Txoko de Ramiro**  
 Gracias  
 Por su visita  
 Dasta ezazu gure gastronomia eskaintza zabala  
 Txofre kalea 4 • GROS  
 Tfnoa.: 943-27.97.99

## GROSEN bertan

**BODEGA DONOSTIARRA**  
 Hegaluzea, antxoa eta piperminaz egindako otarteko txikiak  
 Peña Goñi, 13 Tfnoa.: (943) 290228

TABERNA  
**TXOFRE**  
 GLORIA, 2 - Tfnoa.: (943) 28 58 32

**baduzu nora jo!!**